

Osoko bilkura

Bilbon, 2013ko martxoaren 22an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Haritschelhar, Jean,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea, Zabaleta,
Joseba, kudeatzailea, Gurrutxaga, Ant-
ton eta Mujika, Alfontso, euskaltzain
urgazleak, zegozkien gaitetan.

Ezin etorriak eta ahalak: Arejita,
Adolfo, ahala Patxi Uribarreni; Arko-
txa, Aurelia, ahala Sagrario Alemani;
Irazu, Jose «B. Atxaga», ahala Andres
Urrutiari; Oihartzabal, Beñat, ahala
Xarles Videgaini; Zalbide, Mikel, ahala
A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 12:00etan hasi da
Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ez-
kerreko zutabearen ageri diren euskal-
tzainak bertan direla.

**1. Osoko bilkurako (2013-02-22)
bilera-agiria onartzea, hala erabakiko
balitz.** Ez da ohar idatzirik heldu, baina
J. L. Lizundiak bi ohar egin ditu ahoz;
batetik, 6. puntuan –XVIII. Barne Jar-
dunaldiak, gidoia aurkeztu–, «funtsez-
ko batzordeak» ordez, «arlo iraunkorre-
ko batzordeak» jartzeko; bestetik, 8.4
puntuan –EITBko Administrazio-kon-
tseilurako Euskaltzaindiaren proposa-
mena–, «oroitzapen-idazkia»ren ordez,
«txostena aurkeztu nahiko lukeela»
jartzeko eskatuz. Holaxe onartu da.

2. Exonomastika

2.1. Astronomia (IV): asteroideen eta nebulosen izenak onartu, hala erabakiko balitz

X. Kintanak hitza Alfontso Mujikari eman eta beronek adierazi duenez, ez da oharririk heldu eta, beraz, proposamena ontzat eman da.

2.2. Astronomia (V): kometak, izar iheskorak eta galaxiak aurkeztu

Exonomastika batzordeak prestaturiko zerrenda berriak A. Mujikak aurkeztu ditu. Txosten idatzian termino horietako batzuk itzuli edota egokitzeko orduan kontuan izandako irizpideak ere azaldu dizkie euskaltzainei. Era berean, astronomia izenetako batzuetan letra grekoak erabiltzen direnez gero, **Greziar alfabetoko letren izenak arautzeko proposamena** ere aurkeztu du. Euskaltzain batzuek ahoz iruzkin batzuek egin dituzte *dz/z*, *kh*, *th* eta *y* letren izen eta ahoskeriei buruz. A. Mujikak eginiko oharrak zein iruzkinak batzordeak aztertuko dituela esan du. Ondoren, aurkezturiko txostenei oharrak-eta egiteko epea apirilaren 15era artekoa dela erabaki da.

2.3. Planetetako jatorri-adjektiboak

Exonomastika batzordean aztertutik, beste zerrenda bat aurkeztu du A. Mujikak, planetei erreferentzia egiten dieten adjektiboena. Orain arte euskaraz arlo horretan izandako tradizioa eta inguruko hizkuntzena ere azaldu du. Hauekiko oharrak bidaltzeko epea apirilaren 15a finkatu da.

3. Zientzia eta Teknika Hiztegia

Antton Gurrutzagak aurkeztu ditu txostenak.

3.1. Izen Berezia + (en) izen(a) egiturako terminoak

Ondoren, aurkeztuko diren zerrenden aitzindaritzat, horietan, **izen berezia + (-en) izena(a)** egitura maiz agertzen denez gero, hasteko, A. Gurrutzagak 17 orrialdeko txosten bat aurkeztu eta azaldu du euskaltzainen aurrean, egitura berezi horretan, inguruko kultura-hizkuntzetan zer-nolako irtenbideak eskaintzen zaizkien xeheki erakusteko. Bide berean, kasu bakoitzean euskararako hobetsi edota aukeraturiko bidea azpimarratu da.

3.2. Matematika: oinarrizko hiztegia aurkeztu. Horren hurrengo, A. Gurrutzagak Batzordeak Matematikarako hautaturiko gutxienezko lexikoaren zerrenda aurkeztu du, ingeles, espainiera eta frantsesezko baliokideekin xeheki osatua. Hitz guztiak orain arteko matematika-testuetatik jasoak izan dira eta Unibertsitateko matematikari aholkulariekin adostu dira.

3.3. Fisika: oinarriko hiztegia aurkeztu

Gauza bera egin du A. Gurrutxagak Fisika hiztegi oinarrikoarekin ere, prozedura bera erabiliz.

I. Sarasolak eta A. Sagarnak aurkezturiko lanei, oinarritz, ongi deritzete, baina Euskaltzaindiarentzat oro har egiten ari diren beste antzeko lexiko-bilduma batzuekin koordinatu beharko lirakeela azpimarratu dute.

A. Sagarnak proposamena, euskaltzainek aztertu ondoren, Akademiak onarpen orokorra eman eta eskegirik utzi beharko lukeela uste du. X. Kintanak ere onarpen normala eman baina Euskaltzaindiaren hiztegian oraingoz ez sartzea proposatu du, zientzia eta teknologia arloko bestelako terminoekin multzo handiago eta orekatuagoa lotu arte behintzat. P. Uribarrenek hitz horiek guztiak, behin onartuz gero, hiztegi lehenbailehen iragatea ona litzatekeela adierazi du, horretan interesa dutenek nola jokatu jakin dezaten.

A. Urrutiak Euskaltzaindiaren izenean A. Gurrutxagari eta Zientzia eta Teknika Hiztegia egitasmoan ari direnei zorionak eta eskerrak eman dizkie. Oharrak egiteko epeak honako hauek izanen dira: Matematika lexikorako, maiatzak 15. Fisikarako, ordea, ekainak 19. Oharrak gabeko hitzak, besterik gabe, onartuak izanen dira.

4. Eskuartekoak

4.1. Izendapenak

4.1.1. Adolfo Arejita EITBko Administrazio Kontseiluko kide

Eusko Legebiltzarrak 2013ko otsailaren 28an eginiko bilkuran, A. Arejita euskaltzaina eta Iker sailburua, izendatu du EITBko Administrazio Kontseiluko kide.

4.1.2. Jon Casenave Unibertsitateen arteko Euskal Ikasketen Saileko zuzendari

Jon Casenave euskaltzain urgazlea Unibertsitateen arteko Euskal Ikasketen Saileko zuzendari izendatu berri dute.

4.2. Azokak eta aurkezpenak

4.2.1. Euskaltzaindia Mauleko II. Liburu Azokan

Euskaltzaindiak aurreko martxoaren 16an egin zen Mauleko II. Liburu Azokan gune bat ukan zuen eta Akademiak aspaldion argitaraturiko liburu ugari egon dira ikusgai.

4.2.2. Euskaltzaindia Sarako Liburu Azokan

Aurten apirilaren 1ean Saran egingo den Liburu Azokan Euskaltzaindiak parte hartuko du. Bertan hiru liburu berri aurkeztuko ditu:

- *Jon Mirande, olerkaria*. Txomin Peillenek idatzia (Euskaltzainak bilduma, 18).
- *Antoine d'Abbadie, Abbadiaz*. Jean-Louis Davantek idatzia (Euskaltzainak bilduma, 19).
- *Gratien Adema 'Zaldubi': Gaineratikoan bilduma*. Henri Duhauk paratua (Euskaltzainak bilduma, 20).

Hiru liburuok Euskaltzaindiaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean 2012an izenpetu zen lankidetzaren bidez kaleratu dira. Liburuok euskaltzainei apirilaren 26ko Osoko Bilkuran eskuraziko zaizkie.

4.2.3. J. Haritschelharri omenaldia

Sarako Liburu Azokan bertan J. Haritschelharri omenaldia eskainiko zaio, bere bizitzan zehar euskararen alde egindako lan baliosagatik.

4.3. 2013. urteko egutegia berritu da

Idazkariordeak 2013ko egutegian eginiko aldaketak aurkeztu ditu. Hona hemen:

- **Urtarrilak 25.** Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian:
 - Osoko Bilkura.
 - Ageriko bilkura (hilberri txostenak).
- **Otsailak 22.** Bilbon, egoitzan: Osoko bilkura.
- **Martxoak 21-22.** Bilbon, egoitzan:
 - XVIII. Barne Jardunaldiak.
 - Osoko bilkura.
- **Apirilak 26.** Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian: Osoko bilkura.
- **Maiatzak 31.** Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean: Osoko bilkura.
- **Ekainak 28.** Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean: Osoko bilkura
- **Uztailak 19.** Bilbon, egoitzan: Osoko bilkura.
- **Irailak 27.** Iruñean (lekua zehazteko): Osoko bilkura.

- **Urriak 4.** Tuteran, Nafarroa Oinez dela eta, Ageriko bilkura. Urrian ez da Osoko bilkurarik aurreikusi.
- **Azaroak:**
 - **15.** Iruñean. XVIII. Jagon Jardunaldia.
 - **29.** Zarautzen. Goizean zehar: Osoko bilkura. Arratsaldean, Ageriko bilkura: Ignazio Eizmendi *Basarriren* jaiotzaren lehen mendeurrena.
- **Abenduak 20:** Baionan (lekua zehazteko): Osoko bilkura.

4.4. RAEren 300. urteurrena

Real Academia Españolaren 300. urteurrena dela eta, antolaturiko ospakizunak direla eta, ohorezko batzordean parte hartzeko gonbita egin zaio Euskaltzaindiaren buruari. Zuzendaritzan gonbita onartu egin da.

4.5. Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutzaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien saria

Hautagaiak aurkezteko epea 2013ko apirilaren 30ean amaitzen dela esan zaie euskaltzainei. Iaz, Euskaltzaindiak Joxe Azurmendi euskaltzain ohorezkoa aurkeztu zuen.

4.6. Hurrengo bilkura

Gorago aipatu bezala, Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko bilkura Donostian egingo da, Gipuzkoako Foru Aldundian, apirilaren 26an, goizeko 10:00etan hasita.

5. Azken ordukoak

5.1. Emile Larrereren osasunaz

Emile Larre euskaltzaina bere etxe aitzinean izandako erorketa dela eta, larriki eritu dela jakinarazi da. Pixkanaka onera egiten duen arren, oraingoz bisitekin ez nekatzea gomendatu zaie gainerako euskaltzainei.

5.2. Korrika Euskaltzaindiaren kilometroa

Korrika Baionan amaituko da. Horiek horrela, AEK erakundeak azken kilometroetako bat egin dezan proposatu dio Euskaltzaindiari. J. B. *Battitu* Coyos eta Xarles Videgain euskaltzainek egingen dute kilometroa, Euskaltzaindiaren izenean.

5.3. Jaurlaritzari jarritako errekurtsioaz

Aurreko Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrak onarturiko EAeko Aurrekontu Legean Euskaltzaindiari esleitu beharreko laguntza izendunetik 190.000 euro

atxiki zituela eta, Jaurilaritza berriak arazo hori konpontzeko asmoa adierazi dutela esan du euskaltzainburuak. Horretarako, alde biek laster bilera bat eginen dute. Berri gehiago izan bezain laster, Osoko batzarrari jakinaraziko zaio.

5.4. Hilberriak

5.4.1. Lutxi Alberdiren ama hil da

Zezilia Arruabarrena andrea, Lutxi Alberdi Euskaltzaindiko langilearen ama hil berri dela jakinarazi da. Alabari doluminak adieraztea erabaki da, Euskaltzaindiaren izenean.

M. L. Oñederrak bere kezka agertu du eta era horretako berriak euskaltzainei lehenago zergatik ez zaizkien helarazten galdetu du. E. Osa idazkariordeak arrazoa eman dio eta horren arrazoa ere argitu du. Izan ere, Euskaltzaindiak ezarririk dauka protokolo bat zeinak ezartzen duen Akademiarekin lotura dutenekin (euskaltzain oso, ohorezko, urgazle, batzordekide zein langile) nola jokatu behar den (nori jakinarazi, eta abar).

5.4.2. Javier Oleaga hil da

1941-1961 artean Euskaltzaindiko idazkaria izandako Nazario Oleaga jaunaren semea hil delako berria eman zaie euskaltzainei. Haren senideei Euskaltzaindiaren dolumin adierazpena bidaltzea erabaki da.

5.5. Rikardo Badiolaren erretiroa

Bilera amaitu baino lehen, Rikardo Badiola jauna, azken hamarkadetan Euskaltzaindiko argitalpenen arduraduna izandakoa, bere emazteak lagundurik, batzar aretora sartu da. Euskaltzainburuak harrera egin dio eta berrogei urteotan Akademiaren alde egindako lan handi eta bikaina goraiatu du, hemendik aurrera ongi merezitako atsedena gozatzea desiratu dio. Ondoren, R. Badiolak hitza hartu eta eskerrak eman dizkie, bai euskaltzainburuari eta bai gainerako akademikoei ere. Erakundearen elkarrekin izandako harremanak eta eginiko lanak gogorarazi ditu, bai eta bidean izan dituen bidelagunak ere, horietako zenbait hil direnak (Rosa Mari Artza, Juanjo Zearreta, Xabier Gereño eta Jose Antonio Arana Martija). Bertan bilduriko euskaltzain guztiekin oroitzapen-argazkiak egin ondoren, Osoko bilkura bukatutzat eman da 14:15ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria